

AITZINSOLASA

Jean HARITSCHELHAR
euskaltzainburua

Louis Lucien Bonaparte-ren heriotzearen mendeurrena ospatu du igaz Euskaltzaindiak eta lehenago erabaki zuen 1991. urtea izanen zela Bonaparte urtea. Karia horretara antolatu ditu zenbait ekitaldi printzearen ohoretan:

- 1) Erakusketa bat Londreseko *British Library* delakoan (otsaila-apirila), Bilbon (urria-azaroa), Baionan (abendua), mintzaldi batzuk egin zituztela Londresen Pello Salaburu euskaltzainak, Jose Antonio Arana Martija euskaltzainak eta Jean Haritschelhar euskaltzainburuak.
- 2) Euskaltzaindiak Bonaparte printzearen obrak berrargitaratu ditu lau liburuki marduletan, *Opera omnia vasconice* deritzana. Erabaki hori hartu du Euskaltzaindiak hain sakabanatuak ziren Bonaparte printzearen obrak bilduz, Unibertsitateko ikerle, erakasle eta ikasleek eskupean ukan ditzaten. *Iberdrola* enpresak ordaindu ditu Jose Antonio Arana Martija-k paratu dituen lau liburukiak.

Aipagarria da ere Jose Antonio Arana Martija-k apailatu duen *Bibliografia bonapartiana* bere 1.013 tituluekin, interes haundikoa ikerleentzat. Halaber, erakusketaren katalogoak azaltzen du Louis Lucien Bonaparte-ren ikonografia haren lan hoberenekin.

- 3) Jakinik euskal dialektologiaren aita dela Louis Lucien Bonaparte printzea, nola moldatu zuen lekukoen sare bat Euskal Herri osoan euskalki guzieren ikeritzeko, deliberatu du Euskaltzaindiak antolatuko zuela Nazioarteko Dialektologia Kongresu bat, hau zela XI. biltzar nagusia. Horretarako bildu ditu bere Bilboko egoitza berrian, urriaren 21-etik urriaren 25-a artio Europako unibertsiti-

tateetan dialektologiaz arduratzen diren erakasle-ikerle jakintsuenak. Ahantzi gabe Bonaparte printzea eta azpimarratuz euskal ikerketek zor diotena, kongresuaren helburua izan da gaurko ikerketen berri ukaitea, ikusiz dialektologiaren aldakuntzak, ahozkotasunaren garrantzia, etnografiak daukan tokia, hizkuntz atlasen metodologia, hizkuntz teoria eta dialektologia, dialektometria, kartografia eta abar...

Bortz egun horietan egin diren mintzaldiak, irakurtu diren txostenak liburu gotor honetan, *Iker* sortako zazpigarrena, agertzen dira. Irakurleak ikusiko du zein mintzaldi aberatsak izan diren eta zein probetxugarria izan den aste hori dialektologiako ikerketentzat eta halaber euskal estudioentzat. Baina ez ditugu agertzen mintzaldien eta txostenen ondotik izan diren elkarrizketak, ez gehiegi luzatzeko liburu honen kaleratzeko epea.

Alabainan, kongresu baten balioa neurtzen da ez bakarrik ahoz zabaltzen diren mintzaldietan, baizik eta agertzen diren aktetan. Hainbat hobe laster agertzen baldin badira Euskaltzaindiak egiten duen bezala hauekin.

Kongresu horretan parte hartu dutenak, nahiz mintzatzaleak nahiz entzuleak, oroituko dira Bilbon iragan dituzten egunez eta bereziki idekitze ofizialaz Jose Antonio Ardanza lehendakaria eta Juan Cruz Alli Nafarroako buru eta bertze agintarien aitzinean Euskaltzaindiak ospatzen zuela etxe-sartzea bere egoitza berrian.

Aste ederra, aste aipagarria 1991-ko urriaren 21-ekoa. Eskerrak merezi dituzte lehenik mintzalari eta txostengileek egin duten emaitzarengatik. Eskerrak ere kongresua apailatu duten Euskaltzaindiko bi batzordeei eta haien artean, bereziki, Gotzon Aurrekoetxea eta Xarles Videgain-i, biltzarraren arima eta liburu honen paratzaileak izan direlako. Eskerrak hartuko dituzte ere egun haietan lanean ari izan diren guziek, Euskaltzaindiko langileek, prentsa-bulegokoek, itzulpen zerbitzukoek. Haiei esker kongresuak ukan du merezi zuen oihartzuna. Orain jalgi dadila kanpora liburu honekilan.

PRÓLOGO

J. HARITSCHELHAR
presidente de la Real Academia de la Lengua Vasca

Euskaltzaindia, Real Academia de la Lengua Vasca, celebró el año pasado el centenario de la muerte de Luis Luciano Bonaparte, pero ya antes había tomado la decisión de dedicar el año 1991 a su memoria. Con motivo de este evento ha organizado una serie de actos para honrar la figura del príncipe:

1) Una exposición itinerante que comenzó en el *British Library* de Londres (febrero-abril), siguió en Bilbao (octubre-noviembre) y finalizó en Baiona (diciembre). La apertura de esta exposición itinerante en Londres coincidió con sendas conferencias a cargo de los académicos Pello Salaburu, José Antonio Arana Martija y el presidente de la institución Jean Haritschelhar.

2) La Academia tomó la decisión de publicar las obras más importantes del príncipe Bonaparte. Tarea que vió la luz en cuatro tomos con el título *Opera Omnia vasconice* coincidiendo con la inauguración del congreso. Publicación que pone fin a la dificultad de consultar las obras del príncipe por parte de investigadores de la dialectología vasca. La edición ha sido preparada por el académico José Antonio Arana Martija bajo el patrocinio de la empresa *Iberdrola*.

Es de reseñar también la publicación de la *Bibliografía bonapartiana* del mismo José Antonio Arana Martija que con sus 1013 títulos alberga un gran interés para los investigadores. Asimismo el catálogo de la exposición recoge la iconografía y los trabajos más importantes de Luis Luciano Bonaparte.

3) Teniendo en cuenta que el príncipe Bonaparte es considerado como el padre de la dialectología vasca y que trabajó organizando una red de informa-

dores en todo el territorio de la lengua vasca, Euskaltzaindia decidió organizar un congreso internacional en homenaje a su figura, congreso que hace el XI en la historia de la Academia. Para ello ha reunido en la nueva sede de Bilbao desde el 21 al 25 de octubre de 1991 a profesores de diversas universidades europeas que tienen en común el interés y los esfuerzos para avanzar la disciplina de la dialectología. El objetivo del congreso, sin olvidar la figura del príncipe y su aportación a los estudios vascos, ha sido el reunir a responsables de diversos proyectos dialectológicos que están en vías de realización, estudiar la orientación de las investigaciones en esta rama de la ciencia, la importancia de la lengua oral, la metodología de los atlas lingüísticos, el papel de la etnografía, la dialectometría,...

Las conferencias y comunicaciones impartidas en los cinco días del congreso se publican en la colección *Iker* que la Academia dedica a los trabajos de investigación. Estas actas harán el número siete de la colección. Materiales que podemos en manos del lector que podrá comprobar el alto nivel alcanzado en dichas jornadas y lo provechosas que han sido para los estudios vascos y de la dialectología vasca en particular. Se ha decidido no publicar los coloquios con el fin de agilizar la publicación de las mismas.

En efecto, el valor de un congreso no está únicamente en las conferencias impartidas, sino que se refleja también en las actas impresas. Y más aún si éstas se publican con celeridad como lo ha hecho la Academia.

Los congresistas, tanto los oradores como los oyentes, recordarán que en los días vividos juntos en Bilbao Euskaltzaindia inauguró la nueva sede con la presencia de José Antonio Ardanza, Presidente de la Comunidad Autónoma Vasca, y Juan Cruz Alli, Presidente de la Comunidad Foral de Navarra y otras autoridades.

Memorable semana la que comenzó el 21 de octubre de 1991. Damos las gracias primeramente a los conferenciantes y oradores por el alto nivel de sus aportaciones científicas. Gracias también a las dos comisiones que han organizado el congreso y entre ellos, especialmente, a Gotzon Aurrekoetxea y Xarles Videgain, que fueron el alma del congreso y editores de estas actas. Gracias también a todos aquellos que durante los días del congreso realizaron diversos labores: personal de Euskaltzaindia, oficina de prensa, traducción simultánea. Gracias a ellos el congreso tuvo su merecido eco. Ahora que salga a la luz con este libro.